

Noaia!!



Azaroaren lehenean,
Artisautza Azoka frontoian

Azaroaren 3an Sutejin
Joseba Tapia,
etxean bezala



Etorni ezagutzera 

HARATEGIKO ERREKETAHARRA
 BAJERREKO TXAKAL URDIA, BEHI
 TXULITAK, EINEKO ASKUNKA ETA
 ETXEREN EGINDAKO PRODUKTUEN
 ALKERRA ZABALA.

URDAITEGIKO ERREKETAHARRA
 OHIDU ETA EGOSITAKO
 URDIAZPIKIDAK, EESTAKO ETA
 KANFORO-GIZENAK URDAITEGIKO
 PRODUKTUEN ALKERRA ZABALA.

FRUTADENDA ERREKETAHARRA
 EESTAKO SARAZKO ETA PILUTEN, SESEKIDEN
 PAREGABEA, DEJAN KALITATE
 HANDIENAREKIN SERBITZU HOBERRI-
 NAREN ETA NEURRIKIDEN PREZIOETAN.

Zubiaurrena, 2 • 943.36.55.81 • 40170 Urduliz

Txan

Magoa

Azaroak 4 larunbata
 17.00 eta 19.00 • 2€ • SUTEGIN






FUNERARIA GONZALEZ

USURBILGO EHORZTETXEA

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52
funerariagonzalez@telefonica.net

- ZERBITZU AZKARRA ETA ETENGABEA 24H
- BELATOKI GUZTIEKIN ZERBITZUAK
- GARRAIOAK, HILARRIAK, ESKELAK
- OSPITALE ZENTRU ETA EGOITZETARA ZERBITZUA
- SEGURU KONPAINI GUZTIEKIN LAN EGINTEN DUGU, EHORZTETXERA ZUZENEAK DEITZEKO ALKERRA ENANEAZ.
- HILERRIKO LAN GUZTIAR.

Muna Iurra Kalea 8




r ut k

u i t x n t h u n urkiuk tuzu
 tr n t ut us n r ut g g h g

Badok Amairu !!

Mikel Olasagasti: "Arranoan berpiztuko nintzateke, hegan egiteko duen askatasunagatik"

Olasak aukera izango balu, Jamaikara gustura joango litzateke. Berpiztuko balitz, arranoa izan nahi luke. Autorik gabe, ezin bizi.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Txokolatea.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Lo gehiegi egitea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELEAN?

Erretzekoa eta dirua.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Arranoan, hegan egiteko duen askatasunagatik.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Armiarmeia.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Nire neska laguna.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Autorik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Besoa kaktusarekin jo nuenekoa. Arantzak banaka atera behar izan zizkidaten.

9. LIBURU BAT.

Stephen Hawking-en "Brevísima historia del tiempo".

10. FILM BAT.

"Italian job".



11. LEKU BAT.

Jamaika.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Anaerreketa eta San Esteban.

13. Urtaro bat.

Udaberria.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Bordaerri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ARTISAUTZA AZOKA **5. OR.**

AZAROAN, IKASTARO UGARI KZGUNEAN **6. OR.**

MERKA2 SAN MARKOS AZOKA **7. OR.**

AMAYA GOIARAN, PSE-EEKO KIDEA **8. OR.**

JOSEBA TAPIAREKIN SOLASEAN **10. OR.**

TAILER UGARI SANTUENEAN **14. OR.**

KEROBIAREN JAIALDIA SUTEGIN **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Mezularia hil dute

Hil honen zazpian Anna Politkovskaia kazetaria hil zuten bere etxeko igogailuan. 48 urte zituen eta bi seme-alabaren ama zen. Mehatxu piloa jaso zen telefono eta posta elektronikoen bidez. Behin pozoitu ere egin zuten hegazkin batean. Zer dela eta eraso hauek. Errusiako gobernuak Txetxenian eginiko gehiegikeriak gogor salatzen zituelako.

Novaia Gazeta egunkarian lan egiten zuen eta dirudienez "Errusian bizirik dirauen oposizioeko hedabide bakarra", bere hitzetan. Seguritasun indarrek darabilten hipotesiaren arabera, bere lanarengatik hil dute. Pistola bat eta lau bala zorro aurkitu zituzten gorpuren ondoan. Behin baino gehiagotan bisitatu zuen Espainia. Duela bi urte Vazquez Montalban saria eman zioten Madrilen kazetaritzan eginiko lanagatik. Errusiako kazetaritza umezurtz gelditu da. Europako kazetariak diotenez, Errusiako prentsaren askatasuna murriztu egin da Putinek boterea hartu zuenez geroztik. Ez da harritzekoa, beraz, Errusian gertatzea kazetari baten azken erailketa egia- ren testigantza zuzen eta ausart emateagatik.

Prentsaren askatasunarengatik lan asko egiten du CPJ erakunde- ak; kazetariak babesa ematen saiatzen da eta New Yorken du bere egoitza. Ba, erakunde honen arabera, 42 kazetari hil dituzte Errusian azken hamabost urte hauetan. Lurralde arriskutsuenak kazetarien- tzat dira Irak (78 hildako), Algeria (60) eta gero Errusia. Ranking beltz eta lotsagarri honetan brontzezko domina darama Errusiak. Hil dituzten kazetari guztiek perfil beretsua zuten: botere politiko, ekonomiko eta militarren abusuak sakonki ikertu eta gogor sala- tu egiten zuten. Eta jakina, ia inoiz ez dituzte argitu hilketa horiek. Inpunitate edo zigorgabetasunaren linbo honetan erori da azken 14 urte hauetan munduan zehar hil dituzten 580 kazetarien %80a.

Nina Ogniano bulgariarra da eta kazetariak babesa emateko ardu- raduna Europan. Galdetu zioten ea Annaren hilketa argitu gabe gel- dituko ote zen; bere erantzuna: "Ziur aski; informatzaileen heriotzak 'krimen arrunt' gisa aurkezten dituzte Errusiako fiskalek eta bereha- la artxibatu". Egungo egoera politikoak zerikusi handia duela dio Ninak; bere ustez, hilketa honekin autoritateek adierazi nahi izan

dutena garbi dago: "Prensa libre ez da ongietorria Errusian".

Duela egun batzuk irakurtzen nuen astrofisiko batek filosofo bati esaten ziona, alegia, milioika unibertso paralelo inguratutik gaude- la eta ezinezkoa dela jakitea beroietan zer gertatzen den. Filosofoak bere aldetik, berriz, kezkatu behar genuela zioen ea zer gertatzen zen unibertso horietan, hor ere agian badagoela eta sufritzen duen jen- derik, gerrak, oinazea... "Hiri zer axola zaik, ezin diagu ezer egin", izan zen zientzialariaren erantzuna. Pasadizo honek Anneren kasua gogorarazten zion filosofoari: europarrontzat Txetxenian ere ez al da unibertso paralelo horietako baten gisa? Ez al da guztiontzat izen bat gehiago, leku adierazkaitz bat? Duela bi urte irakurri omen zuen filosofoak Annaren liburua "La deshora rusa", Txetxenian gerra ankerra salatuz. Horrela jakin zuen jendearen sufrimendua, bertako egoera kaotikoa, zein interes zikinak bultzatuta egiten zuten Txetxenian gerra. Hori da kazetaritzaren indarra: hitzaren bidez ez dena izatedun bihurtzen duela.

Munduko hiritar garenez, gure eginkizuna da inguruan gertatzen denaren informazio ahalik eta zabalena jasotzea. Zorionez oraindik badago kazetari multzo bat sufritzen dakiena, beldurrik ez duena bulegoak utzi eta botak lokatzetan zikintzearekin ikaratzen ez dena. Anna Politkovskaia zen horietako bat. Hau hil duenak nahi zuen munduak lehenbailehen ahantz zezan Txetxenian gertatzen dena. Bere desira zen zalantzarik gabe Txetxenian lehen aipaturiko uniber- tso paralelo horietako bat bihurtzea.

Ez da oraingoa kazetariak edo egia- ren mezulariak erasotzea. "Status quo"aren defendatzaileentzat iraultzaile, subertsibo arrisku- tsua da kazetaria "Egiak askatuko zaituzte", dio Bibliak. Ez dago per- tsona librerik, beraz, ezjakintasunak eta gezurrak sortutako mundu irreal batean bizi garen bitartean. Annak bere biziarekin ordaindu du egia- ren testigantza ematea.

Oscar Romero El Salvador-ko Artzapezpikua izan zen. "Hiltzen banaute, salvadordarrengan berpiztuko naiz, eta apaltasun osoz diot hori". 1980an erail zuten paramilitarrek. Anna Politkovskaia ere betirako bizi dadila egiazale guztiongan.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika !

Endika Abril Errebote Txapelketa

Aurreko igandean Billabonako pla- zan errebote partida polita ikusteko aukera izan nuen pilota federazioko gon- biteari erantzunez. Ordezkarik politikoa: Billabonako alkate-ordea eta neu, Usurbilgo alkatea. Zubietako ordezkarik politikorik ez nuen ikusi.

Aldizkari honen aurreko alean partida hau Zubietan ez jokatzearen esplikazio bat ematen zen. Esplikazio hura oso hanka- motza zen, eta labur-labur argituko dut.

2003. urtean pilotalekuaren zorua kon- pontzeko 60.000 euro aurreikusiak ziren udal aurrekontuetan baina Zubietako Herri Batzarraren eskakizunez obra hura ez zen egin eta dirua frontoi atzeko lokala osatzeko gorde zen.

2005ean Batzarrak —era irregularrean— pilotalekua eta bere ingurua eraberritzeko proiektu bat enkargatu zuen. Obra honen kostu estimatua 800.000 eurotik gora. Batzarrak, Donostia eta Usurbilgo udale- kin batera eginiko bileran (2006ko mar- txoaren 20an) Donostiako alkatea, Elorza jauna, obra hori Donostiako udalak egin- go zuela adierazi zuen. Denok dakigu horrelako obra handi baten kudeaketa eta gauzatzeak bizpahiru urte behar duela.

2006ko uztailaren 6an Zubietako pilota elkartearen ordezkartza bat nirekin elkar- tu eta bilera ospatu genuen. Eskatera bate- kin zetozen: Endika Abril txapelketaren finala jokatzeko pilotalekuaren zorua kon- pondu behar zela. Ni konprometitu nin-

tzen konponketa hori egitera baina Zubietako auzoa ordezkatzen duen Batzarrak eskatu behar ziola Usurbilgo udalari era horretako obrak. Geroztik isil- tasuna. Inork ez du ezer adierazi NOAUA!ren azkenengo aleko kritikak arte.

2006ko irailaren 20an bi udalak Batzarrarekin elkartu ziren. Batzarrak ez zuen pilotalekuaren zoruaren konponketa eskatu Endika Abril txapelketaren finala jokatu ahal izateko.

Egiak esan behar badira, egia osoa esan behar da.

Luis mari Ormaetxea, Usurbilgo alkatea

Azaroaren lehenean, artisautza azoka

Aitzagak antolatu duen azokan herriko artisauen lanak bilduko dira

Aitzaga Kultur Elkartek artisautza azoka antolatu du. Iazko etenaldiaren ondoren, urte askotako ekimena ospatuko da azaroaren 1ean pilotalekuan. Tartean, herritar ugariren postuak izango dira.

Eskuz landutako produktu sorta ederra ikusi eta erosteko aukera izango da, 11:00-14:00 artean. Pilotalekuan hogeitabat erakusgune jarriko dituzte. Goiz osoan zehar, ukendu, esneki, zesto, egur taila, zeramika edota ume jantzien postuetatik barrena osteratxoa egiteko aitzakia ederra.

Tartean izango dira usurbildarrak ere. Elexpe egur tailen postuarekin; Maite Agirresarobe eta Ana Lopez eskuz egindako margo lanekin; Askatasuna Nekazal Kooperatibakoak lan tresnekin. Baita Sagarlanekoen sagar gozokiak edota Zubietako Etxetxoren loreak ere.

AITZAGA KULTUR ELKARTEA

“Lokala itxita izan arren, hor gaudela adierazi eta kultur elkarteak funtzionatzen jarraitzen duela ikustea nahi dugu”

Aitzaga Kultur Elkartetik artisau azoka, “lokala itxita izan arren, hor gaudela adierazi eta kultur elkarteak funtzionatzen jarraitzen duela ikustea nahi dugu”.

Helegiteek erantzunik ez

Otsailean itxi zuten Aitzaga. Horren haritik, Aitzaga Kultur Elkartearen eta inputatu zituzten herritarren izenean bi helegite aurkeztu zituzten. Oraindik, ordea, ez dute erantzunik jaso.



Marras marra tailerrekoak ere azaroaren 1eko azokan izango dira

Marras marra. Maite Agirresarobe eta Ana Lopezek lan egiten duten tailerraren izena da. Errestaurazio lanak egiten dituzte. Baita margo lanak ere; material ezberdinen gainean eta hormetan. Artisan azokan izango dira.

NOAUA! Zer ikusi ahal izango dugu zuen postuan?

Maite Agirresarobe. Aurten berrikuntzekin gatoz. Kolore biziko margo lanak erakusgai izango ditugu.

Ana Lopez. Haurren geletako hormak guztiz edo partzialki apaintzeko ereduak erakutsiko ditugu.

N. Lan hauek egunerokotasunean egindakoak dira?

A. L. Espreski azokarako egindako lana da. Guk egunerokotasunean, tailerrean egiten dugu lan. Enkarguekin funtzionatzen dugu; dekorazio edota margo lanekin. Taberna edota etxe bat margotzeko bertatik ateratzen gara.

M. A. Usurbilgorako prestatutako materiala beste azoka batzuetarako balia-



tzen dugu.

N. Azokak zuen lanen erakusleihu garrantzitsuak izango dira, ezta?

M. A. Egun, bertan saltzen duzu. Baina askok egun horretan enkarguak egin eta geroago deitu egiten digute.

A. L. Postuan gure lana ezagutarazten saiatzen gara. Panelen batzuk eramaten ditugu.

N. Erosi baino ikustera hurbiltzen omen gara azoketara.

M. A. Usurbilen bai. Hala ere, ikusmiran jende asko etortzen da.

A. L. Salmenta ona izatea, harritzekoa da.

Azaroan, ikastaro sorta ederra KzGunean

Azaroan zehar arratsaldez irekiko ditu ateak, 16:00etatik 20:00etara

Hilabete berria estreinatze-arekin batera, KzGuneako ordutegia ere aldatu egingo da. Datorren astetik aurrera, arratsaldez zabalduko da Interneten erraz, doan eta bizilekutik gertu nabigatzeko aukera ematen duen gunea; 16:00etatik 20:00etara.

Ohi denez, hedabidea ezagutzeko Internet ikastaroa eskainiko da. Astegunetan, bi asteetan zehar eta euskaraz. IT ziurtagiri txartela eskuratzeko azterketak hileko hamabi egunetan izango dira. Bi orduko saiota banatuta.

IT TXARTELA

“IT Txartela eskuratzeko azterketak hileko hamabi egunetan izango dira. Bi orduko saiota banatuta”

Bestalde, eduki eta iraupen ezberdinetako ikastaroak eskainiko dira. Denak euskaraz, ikastaro bat izan ezik. Teknologia berriek geroz eta erabilera gehiago eskaintzen dituzte. Horien artean, argazki kamera digitalen ditugun irudiak lantzekoa. Iraupen aldetik, “Irudi Digitalen Tratamendua” hilabeteko ikastarorik garrantzitsuen izango da. Azaroaren 27tik 30era arte eskainiko da, erdaraz, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Euskal Herriko nekazal munduak sarean duen presentzia ezagutu edota sinadura elektronikoa egiten ikasteko aukera ere izango da.

Sukaldean plater berri bat prestatzen ikasteko gomendioak inoiz ez daude soberan. Oporretara nora joan erabaki ezinda izaten gara askotan.

KzGunean gai horiei buruzko erantzunak ere aurki daitezke. Via Michelinen eskutik bidaien gaia jorratuko da; Fagor Gida Gastronomikoa baliatuta, sukaldaritza kontuak.

Komunikabideek ere Internet munduan herritarrengana iristeko bide bat aurkitu dute. Azaroan KzGuneetik luzatzen den proposamenak gai horrekin lotura du. Asko dira etxe inguruan zein mundu zabalean gertatzen den azken orduaren berri izateko Internetera jotzen dutenak. Bertan aurki daitekeenaren berri emango da “Zure egunkaria irakurri” ikastaroan.

Euskarak hedabide berean duen presentzia ere aztertuko da beste mintegi saio batean. Azaroaren 29an, “Euskara ziberespazioan” izenburupean.

ARITZ GORRITI



URRIAN GOIZEZ IZAN DA IREKITA, AZAROAN, ORDEA, ARRATSALDEZ.

Ikastaroak eta IT azterketak

IKASTAROAK

Internet KzGunea ikastaroa

Egunak: Azaroak 6- azaroak 17
Ordutegia: 18:00-20:00

Euskal Herriko nekazal mundua

Eguna: Azaroak 7 asteartea
Ordutegia: 16:00-18:00

Sinadura elektronikoa

Eguna: Azaroak 16 osteguna
Ordutegia: 16:00-17:00

Via Michelin-ekin bidaiatu

Eguna: Azaroak 16 osteguna
Ordutegia: 17:00-18:00

Zure egunkaria irakurri

Eguna: Azaroak 20 astelehena
Ordutegia: 18:00-19:00

Fagor gida gastronomikoa

Eguna: Azaroak 20 astelehena
Ordutegia: 19:00-20:00

Irudi digitalen tratamendua I (gaztelaraz)

Egunak: Azaroak 27 – azaroak 28
Ordutegia: 16:00-18:00

Irudi digitalen tratamendua II (gaztelaraz)

Egunak: Azaroak 29 – azaroak 30
Ordutegia: 16:00-18:00

Euskara ziberespazioan (euskaraz)

Eguna: Azaroak 29 asteazkena
Ordutegia: 18:00-20:00

IT TXARTELA AZTERKETAK

Azaroak 6,8,10,14,15,17= 16:00-18:00

Azaroak 17,21,23,24,27,28,30= 18:00-20:00

Urriaren 29an, “Merka2 San Markos” azoka

Berrerabilpena sustatzea da Dema plazak jasoko duen ekimenaren xedea

Hondakinen sorrera gutxitu asmoz, erabilitako materiala berriz merkaturatzea. San Markoseko Mankomunitateak bigarren urtez antolatu duen “Merka2 San Markos” azokaren erronka nagusia da.

Mankomunitateko hamar herrietan bigarren eskuko azoka bana ospatuko da. Usurbilen, igande honetan, urriak 29, Dema plazan, 10:00-14:00 artean. Eguraldi txarra egingo balu, pilotalekuan.

Mankomunitateko ordezkariak ekimena aurkezteko eskaini zuten prentsaurrekoan, iaz izan zuen arrakasta azpimarratu zuten. “10.000 herritarrek baino gehiagok parte hartu zuten”, adierazi zuten mankomunitateko lehendakari Fermin Lorzak.

Iazko harrera ikusita, aurtengoan, azoka indartu nahi dute. Mota guztietako produktuak salgai izango dira 23 postuetan; arropa, liburuak, altzariak, informatika produktuak, jostailuak, DVDak... Guztiak bigarren eskukoak.

“Merka2” ekimenaren bidez, herritarren artean prebentzioa ere landu nahi da. Hiritarrek hondakinekin zer egin dezaketen jakinarazteko Informazio Puntua izango da. Bertan, bi ingurumen hezitzaileek herritarren zalantzak argitu eta kanpainaren berri emango dute. “Hiritarrei prebentzioa bultzatzeko ohiturak eta aukerak zeintzuk diren helarazi nahi diegu”, adierazi zuten



MANKOMUNITATEKO ZUZENDARI KUDEATZAILE IÑAKI CASTILLO, FERMIN LORZA LEHENDAKARIA ETA INGURUMEN TEKNIKARI ELENA EGURROLA. IRAGAN ASTEAN AURKEZTU ZUTEN “MERKA2” AZOKAREN BIGARREN EDIZIOA.

zuzendari kudeatzaile Iñaki Castillok.

Mezuak salmenta postuetan soilik ez. Fikziozko irrati kate baten bidez ere zabalduko dira. Herritarrei, saltzaileei eta udal ordezkari politikoei egindako elkarrizketak entzungo dira.

Herritarren parte hartzea ere bultzatu nahi da. Hala, egun horretan bertan, herritarrek izan ditzaketen produktu erabiliak iragartzeko aukera izango da “Iragarkien txokoan” deiturikoa.

Azoka egunerako dagoeneko banatzen ari dira etxex etxe “Merka2”ra gerturatzeko gonbidapenak. Azoken egutegia zehazteaz gain, ekimen horretan xahutzeko 12 euroko bost

txartelen zozketan parte har daiteke.

Azoka birtuala zabalik

Ekimenari iraunkortasuna eman nahian, dagoeneko abian da “Merka2 San Markos” ekimenaren web gunea (www.merka2sanmarcos.org). Erabilitako produktu bat saldu, erosi, trukatu edo oparitzeko iragarkiak jar daitezke sarean. Horretarako, erabiltzaile gisa erregistratzea nahikoa da. Erregistro fitxa beteta, e-posta edo SMS bidezko jakinarazpen zerbitzua eta orrialdean zintzilikatu berri diren iragarkien inguruko boletina jasotzeko aukera dago. Azoka birtualaren xehetasun gehiago, urriaren 29an Dema plazan.

ARITZ GORRITI

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

MAHUKA
 ETXEBESTE KALEA, 3 · 943 351 106

Hemen aurkituko duzu
 gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Amaya Goiaran, PSE-EE/PSOE

“Legealdi honetako proiektu inportanteenak teknikariei eta langileei esker atera dira aurrera”

Legealdiaren azken txanpan sartu gara. Balantzea egiten hasteko garaia da. Alderdi sozialistak dituen bi zinegotzietako bat da Amaya Goiaran. Bere ustez, “udal-gobernuaren inguruko balorazioa txarra da, lan-talde baino deskoordinazio-talde izan da”. Bide batez, puri-purian diren kontu batzuk ere jarri dizkiogu mahai gainean.

NOAUA! Legealdia amaitzeko sei hilabete falta dira. Zein da udal-gobernuari buruz duzun iritzia?

Amaya Goiaran. Udal-gobernuaren inguruko balorazioa txarra da, lan-talde baino deskoordinazio-talde izan da, erabaki denak inprobisatuz hartu baitira. Lan egiteko era horren bitartez, ez dute teknikarien iritzia entzun nahi izan eta obren kostuak asko igo dira. San Inazioko errotonda har daiteke adibide gisa. Aurrekontuan jasotakoa baino kostu handiagoa izan zuen eta Kale Nagusiko obrak ere, bide beretik doaz. Langileekiko harremanak orokorrean ez dira onak izan. Gure taldearekin, iaztik hona ez da harremanik existitzen.

Lorpen handiena ezin zaio udal-gobernuari eman, legealdi honetako proiektu inportanteenak teknikariei eta langileei esker atera dira aurrera, euren saiakera eta profesionaltasunarekin era arrakastatsuan burutu ahal izan direlako.

Txarrean, “lorpen handiena” udaletxearen patrimonioaren xahutzea izan da. Udalak dituen ia herri lur gehienak sal-



AMAYA GOIARAN, USURBILGO UDALBATZA ARETOAREN ATARIAN.

tzen ari dira eta salmenta horiekin jasotakoa zertan inbertituko duten ez dugu oso argi. Oraingoz, legeak ezartzen duena ez da betetzen eta horregatik Estatuko abokatuak demandaren bat aurkeztu du.

Beste porrot handia: komisiotan eta plenoetan udal langile zein alderdi politikoekin konpromisoetara iritsi eta gero, ez dira udal-langileen organigrama konpontzeko gai izan. Honek langile askoren motibazio falta ekarri du.

N. Eta oposizioaren lana, nolakoa izan da?

A. G. Ez dut uste PSE-EE eta PP alderdiek egindako oposizioa epaitzeko egokiena naizenik. Herritarrek dira gure

lana epaitu behar dutenak. Aktak hor daudela esango dut, besterik ez, eta alkatuek urtebete egin duela bozeramale honekin udalgintza mailako gaiei buruz hitz egin gabe. Akaso bere akatsak txalotzen ez dituelako izango da, bere akatsak onartu ez eta salatu egiten dituelako.

N. Alderdien legeak ze neurritaraino baldintzatu du udaletxeko jarduerak? Lege hori ezabatzeak alderdien arteko harremanak normalizatzen lagunduko luke, ez al zaizu hala iruditzen?

A. G. Alderdien legeak ez du legealdi hau baldintzatu, ez bere garapenean behintzat. Mapa ezberdin bat ekarri zuen, alderdi batek ez zuelako lege hori bete nahi izan. Baina Usurbilgo kasuan,

Patri Jatetxea

K/nagusia 14, ☎ 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxro 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10/
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

LABE-GOXO

korporazioaren martxan ez dira traba izan. Publiko gisa azaldu diren plenoetan portaera ona erakutsi dute. Nire ustez, alderdi guztiek lege hori onartu beharko lukete. Lege honek eskatzen duen gauza bakarra zera da: helburu politikoak lortzeko terrorismoa metodo gisa kondentatzea. Behin denak legeztatuta, egin beharreko aldaketa denak aztertuko dira, legea aho betez onartua izan dadin.

AMAYA GOIARAN

“Bake prozesuan inplikatura daudenak lasaitasuna, isiltasuna eta konfiantza eskatzen dute”

N. Bake eta normalizazio prozesua *impasse* egoeran dela dirudi. Zure ustez, zeintzuk dira prozesua bideratzeko eman behar diren pausoak?

A. G. Prozesua aurreikusi bezala doa. Inplikatura daudenak lasaitasuna, isiltasuna eta konfiantza eskatzen dute. Orain arte eman diren urratsek ez dute atzerabiderik, hala uste dut nik. Euskadin bake eta normalizazio prozesuari orain danbatekoa emango bagenio, gizarteak ez luke barkatuko. Beste kontu bat da alderdi ezberdinek egin behar dituzten eszenifikazioak. Eta beste kontu bat, negoziazioan parte ez direnen protagonismo gosea. Bidea zein da... Prozesua abiarazi zutenei lanean uztea eta konfiantza izatea.

N. Errauste planta ezartzeko, Zubieta hartu dute begipuntuan mankomunitateek, Odon Elorzak eta Foru Aldundiak. Zer esango zenieke beste alternatiba batzuk aztertzearen alde azaldu direnei?

A. G. Hiri hondakinen arazoaren konponbidean dabilzan guztiei, errauste planten aurkako taldeei eta alde zein kontra dauden politikoei zera esango nieke: elkarrizketak has ditzatela, batzuen eta besteen iritzia entzun ditzatela eta behingoz hiritarrengan pentsa dezatela. Arazoari irtenbide egokiena bila diezaioela. Eta instalazioak aukeratzekoan, azken belaunaldikoak izan daitezela, batez ere ingurugiroaren arlotik ikusita.

Manuel Michelena, PPko zinegotzia

“Udalak finantza-ahalmen txikia dauka”

Legealdia amaitzeko sei hilabete falta dira. Zein da udal-gobernuari buruz duzun iritzia?

Manuel Michelena. EAK eta EAJ-PNVk osatu duten udal-gobernuak ez du gobernu-programa bateratu bat lortzeko ahalegina egin. Panpin bat jantzi baino ez dute egin, errealitatean egoera ez da ezertan aldatu. EAKo alkateak gutxiengoan hasi zuen legealdia, beste alderdiekin programarik hitzartu gabe eta EAK eta EAJ-PNVk egin duten postu-banaketa gauza bakarrerako balio izan du; EAJ-PNVk ere aurrekontuak onartzea ziurtatu du alkateak.

Usurbilgo udalak finantza-ahalmen txikia dauka. Aurrekontuaren zati handiena gastu korronteetan joaten da eta obra berrietan inbertitzeko ahalmen txikia du. Egoera ekonomikoa aldatzeko borondate politikoa behar da, alkateak eta EAJ-PNVrekin egindako simulakro itxurako koalizioak izan ez duten borondatea. Inbertsioei aurre egiteko gastu korronteak murriztu behar dira baina hori egin beharrean, EAK eta EAJ-PNVk gehiago zorpetu dute udaletxea, inoiz ez bezala, eta urbanizatzaile diren lurren aprobetxamendu urbanistikoak xahutu dituzte. Bestetik, lau urteotan egin diren obra gutxi horiek 2003a baino lehen aurreikusitakoak ziren. Alkateak, akaso, San Inaziko errotonda eta futbol zelaiaren berritzea lorpen bezala aurkeztu nahiko ditu, baina kontuan izan behar da Foru Aldundiaren dirulaguntzarik gabe obra horiek ez liratekeela egingo.

N. Oposizioaren lana nolakoa izan da?

M. M. Ez dugu talde sozialistaren lana baloratu nahi, gauza askok batzen gaituzte eta beste gauza askok urruntzen gaituzte. Usurbilgo PP alderdia kritikoa izan da udal-gobernuarekin, aurreko galderan aipatu dugun ildotik. Baina ez dugu oposizio sistematiko bat egin egunerokotasunean. Zinegotzi eta funtzionario guztiekin harreman onak izaten saiatu gara.

N. Alderdien legeak ze neurritaraino baldintzatu du udaletzeko jardura?

M. M. Alderdien legea ez zen udaletxetako lana baldintzatzeko egin, talde terroristekin begibistako harremanak dituzten erakundeen ordezkartzak saihesteko baizik. Alderdien legea ez indargabetzea espero dugu, udaletxeetako martxa normalizatzeko tresna egokiena izan baita.

N. Bake eta normalizazio prozesua *impasse* egoeran dela dirudi. Zure ustez, zeintzuk dira prozesua bideratzeko eman behar diren pausoak?

M. M. PP alderdian ez dugu uste Gobernua eta ETaren arteko negoziatzioa *impasse* egoeran dagoenik. Duela denbora asko R. Zapatero politikoki negoziatzen ari da erakunde terroristak batekin, sekretuan, eta hau da egin zezakeen okerrera. Ez du ETarekin amaitu nahi, prezio bat ordaindu nahi du, baina zertarako? Laster jakingo dugu baina demokratontzat ez da batere ona izango.

N. Errauste planta ezartzeko, Zubieta hartu dute begipuntuan instituzioek. Zer esango zenieke beste alternatiba batzuk aztertzearen alde azaldu direnei?

M. M. Errauste plantarekin gertatzen ari dena lotsagarria da. Elorza zein Foru Aldundia gipuzkoarren kontura barre egiten ari dira, hartutako erabakiak behin eta berriz zuzenduz. Horrela ezin da jakin noiz konponduko den hiri hondakinen inguruko arazoa. Argi dagoena zera da, San Markos hiru hilabete barru itxi egin behar dela eta PPk data hori betetzea eskatuko du San Markos inguruko bizilagunen egoera jasanezina baita.

Errauste planten aurkako taldeei zera esango nieke, Gipuzkoako mankomunitateek egin dituzten proposamenen aurrean ez direla konponbide errealistak eta alternatiboak aurkezteko gai izan. PIGRUPen jasota dauden birziklatze eta konpostaje helburuak bete daitezela, talde kolaboratzaileetan bihurtu beharko lukete.

Joseba Tapia

“Disko bariatua egiten saiatu naiz”

“Real Politik” izeneko azaroaren 3an aurkeztuko du Sutegin

Urriaren 18an aurkeztu zuen disko berriena Joseba Tapiak; bakarka argitaratzen duen laugarrena. “Real Politik” diskoarekin batera, *Zakurraren Biolina* zigilua aurkeztu du Tapiak. Bide errazena ez du hartu, baina pozik dago eman duen urratsarekin. Dagoeneko hasi da zuzeneko emanaldiak eskaintzen. Datorren astean, azaroaren 3an, Sutegin arituko da. NOAUA!k antolatu duen saio honetarako sarrerak salgai daude jada Txirristan eta NOAUA!ren egoitzan bertan.

NOAUA! “Bide lau samur berdina baino nahiago dut malda”, diozu “Bidegorrian” kantuan. Horregatik argitaratu duzu zure kasa diskoa?

Joseba Tapia. Ez naiz masokista! Ez dudala bide errazena hartzen, nire bidea ez dagoela modan. Hori esan nahi dut kantutxo horrekin. Joxean Agirrek idatzi berri du nengoenetik batera mugitu gabe ere txaloak seguru nauskala...

Diskoari dagokionez, eskura nuen auto-produkzioa egiteko aukera eta probatu behar nuela pentsatu nuen. Urte asko daramatzagu mundu honetan eta detaile askotaz arduratu izan gara baina beste askotaz ez. Aukera nuen beste atal horiek neronek zuzentzeko, mimatzeko. Interesantea izan da, baina uste baino konplikatuagoa. Fabrikazioak, kontratuak, promozioak, distribuzioak... Orain ulertzen ditut diskoetxeak, nolako lana hartzen duten gure diskoen inguruan. Eta baita zertan egiten duten oker. Lehen susmoa zena orain ziurtasun osoa dut.

N. Koldo Izagirre idazlearen itzala handia da lan honetan. Bikote emankorra osatu duzue.

J. T. Koldoren hitzekin kantatu batzuk egin ditut, baina diskoa bariatua egiten saiatu naiz eta idazle ezberdinak ekarri ditut disko honetara. Eboluzio baten



URRIAREN 18AN EGIN ZUEN DISKOAREN AURKEZPENA JOSEBA TAPIAK.

barruan kokatzen dut nire burua, eta nire helburua, hobeto esan, nire utopia, idazle-dependentea ez izatea da: nik neuk egin ahal izatea orain beraiek egiten dituzten mailako letra ederrak, noizbait. Baina bitartean Izagirre, Gartzia, Barberana edo Azkona bezalako poeten lanak baliatzen ditut.

JOSEBA TAPIA

“Ez naiz idazle bakar baten kantaria, uste dut argi utzi dudala lan honetan”

Koldok poesia modernoan abiatu nau, ikuspuntua aberasten lagundu dit, poesiari berari buruz eztabaidatzen dugu... Orain kantua egiteko garaian letra hautatzen dut aurrena, ez naiz melodia batetik abiatzen. Lehengo eran arriskua neukan klitxeetan gelditzeko, errazkerian erortzeko... Poemak ez dira beti karratuak izaten estruktura aldetik, erritmo ezberdinak dituzte, indarra ez da beti bukaeran egoten... Letrak

behartzen zaitu alde batera edo bestera. Gehiago kostatzen da beharbada, baina asmatu ezker oso emaitza ederrak ateralitezke... Eta Koldorena amaitzeko: lagun handia dut, baina ez naiz idazle bakar baten kantaria, uste dut argi utzi dudala lan honetan. Denok bat eta bakoitza bere, beste hark zioen moduan.

N. Bi bertsio ere jaso dituzu lan berrian, tartean, “Bilbao song” kantua.

J. T. Bertolt Brecht Mikel Laboaren kantuetan ezagutu nuen aurrena, gero bere poema laburrak, kanturakoak. Kantu hau berea ez zen opera baterako idatzi zuen. Bertsio asko ditu “Bilbao Song” honek, gogoan daukat Woody Allen-ek nola jo zuen Donostian, Jazzaldian. Gerora bertsio mordoa ezagutu ditut. Euskaraz ez genuen kantatu hori, nik dakidala behintzat. Cabaret moduko musika bat da eta nostalgiaz kontatzen du dantzaleku hartako istorioa. Erronka modukoa zen niretzat, bestelako kantarra. Oso pozik nago kantatu hori grabatu izana.

“Sutegi ez da sobera handia, baina ederki egoten da begira butaka beltz horietatik”

NOAUA! Oskorriko Natxo de Felipe kantariaren eta Mertxe Olidenen bozak jaso dituzu lan honetan. Natxo de Feliperekin Gabriel Arestiren “Biba Berango” kantua abestu duzu. Natxori egindako omenaldia dirudi.

Joseba Tapia. Bai, horrelaxe da. Natxo de Feliperekin kantuetan ezagutu nuen Aresti. Oskorraren garai hura, zein ederra! Aresti oso inportantea izan da guretzat, hark erakutsi zuen ze baliabide interesgarriak eskaintzen dituen bertso munduak eta trikiti munduak. Herritarra izateak edo baserritar munduak ez zuela atzerakoia izan behar derrigorrez. Mikel Laboak kantua egin zuen. Trikitilariok ez ginen enteratu ere egin. Oso mundu itxian bizi ginen. Trikitirako egin zituen kopla hauek Arestik eta nik trikitirix mundura itzuli nahi izan ditut, Laboari lapurreta egin da. Hala ere, Aresti kantatu behar nuen Natxo gonbidatzea iruditu zitzaidan egoki. Asko miresten dudana kantaria da. Mertxe Olidenen ahotsa oso ederra da. Badu lehengo kantatzeko modu bat izugarri atsegin dudana. Agur Intxorta maite diskoan parte hartu zuen eta “Hobe soldadu sartzea” kantuan bera da ahots printzipala.

N. “Entzun ezazu deabru jauna edo anderea:/ gozamenaren azkura aspal-di zeharo galdu da / hemen behar dena da zure diktadura / parrilan erretzeko Kristoren jendea!”. Elizarekin fijazioa duzu aspal-di honetan. Zalaren bat ez al zaizu haserretu?

J. T. Nik fijazioa Elizarekin? Bai zera, berak dauka fijazioa gurekin! Pertsegitu egiten gaitu bere moral bikoitz eta oker horrekin. Behartsuen ondoan egon behar dugula eta gero, bera badakigu noren ondora arrimatzen den. Triste jartzen naiz nire lagunak elizaz ezkontzen direla ikusita. Ez dut ulertzen txorakeria eta itxurakeria hori dena. Baserritar uniforme jantzi eta espektakulo ederra antolatzen dute batzuek apaiza buru dela. Elizak eraikin ederrak dira beste zerbaitetarako, kontzertuak eskaintzeko

adibidez. Aurretik patrifili horiek denak kenduta, jakina.

N. Espainiako himnoa ere jaso duzu “Madrilgo lagunak” kantuan. Probokazioarena musikariaren betebeharra al da?

J. T. Nik tarte hori ez dut probokazio bezala ikusten. Testu hori 1977an idatzi zuen Bitoriano Gandiagak. Beti sentitu dugu espainiarrekin gai batzuetaz ezin dugula hitz egin. Kuriosoa egin zitzaidan letra. Musika jartzen ari nintzenen, ETAre su-etena etorri zen eta arrisku handia hartu nuen, gure etsai zirenak gure lagun bihurtzera zihoazen derrepente. Esperantza handia zegoen, prozesua blindatuta zegoela zirudien, baina tamalez kantuak ez du galduko gaurkotatzen. Nik uste dut rekreazio modukoa dela himnoarena, ez dakit norentzat izango den probokatzailea: ez al dute ba konstituzioa ahotan hartzen euskaldunok zer edo zer eskatzen dugunero? Himnoa da konstituzioaren baliokide musikala. Hala ere, niri kantuetan probokazio puntu bat gustatzen zait, umorea, ironia... Baina ez nuke esango musikariaren betebeharra hori denik. Ni neure bidea egiten saiatzen naiz, ez nago besteek zer egiten duten fiskalizatzeko. Hala ere, neure iritzia dauzkant kantagintzaz.

N. Sutegi dagoeneko ezagutzen duzu. JC Perezen emanaldian ikusleetako bat izan zinen. Gustukoa al duzu auditorioa?

J. T. Goxoa, bildua iruditzen zait. Ez da sobera handia, baina ederki egoten da begira butaka beltz horietatik. Bitan izan naiz bertan eta gustura.

N. Azkenik, azaroaren 3an Sutegin eskainiko duzun saioa nolakoa izango da?

J. T. Disko berria aurkeztuko dut, “Real Politik” diskoko kantuak aurkeztuko ditut eta aurreko diskoetako kanturen bat ere ekarriko dut gogora. Bi musikaririk lagunduta ariko naiz kan-



DISKO BERRIAN, MERTXE OLIDENEK ETA NATXO DE FELIPEK HARTU DUTE PARTE.

tuan: Arkaitz Miner bibolina, mandolina eta zapatekin eta Jexux Aranburu soinu handia eta teklatuarekin. Hirurak aterako gara eskenatokira.

Azaroaren 3an Usurbilen, NOAUA!ren eskutik

Sarrerak salgai daude Txirristan eta NOAUA!ko egoitzan. Egunean bertan, Sutegiko takilan ere eskuragarri izango dira. Baina badaezpada, aldeztu aurretik erostea komeni da. Sutegiko auditorioa ez da oso handia eta ez harritu sarrerak uste baino lehen agortzen badira. Jaialdi honetan, NOAUA! Kultur Hamabostaldiko beste ekitaldi batzuetan bezalaxe, NOAUA!ko bazkideek sarrera merkeago eskuratzeko aukera dute. Baina kasu horretan, bazkideek NOAUA!ko egoitzatik pasa behar dute sarrera hartzera eta azaroaren 2a baino lehen. Hori bai, bazkide bakoitzak beharpe-nezko sarrera bakarra eskuratuko ahal izango du.

Urriaren 31n hasiko da NOAUA! Kultur Hamabostaldia

Lasarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolako ikasleen saioa-ekin hasiko da Kultur Hamabostaldia; NOAUA!k udazkeneko antolatu ohi duen zikloa. Joseba Tapia, Txan Magoa eta Xabier Amurizaren saioak ere jaso dira aurtengo egitarauan.

Urriaren 31ko antzezlanak umore kusukoa da. Gaueko 22:30ean hasiko da eta sarrera 3 eurokoa izango da. NOAUA!ko bazkideek, ordea, doan sar daitezke. Baina kasu horretan, bazkideek NOAUA!ko egoitzan eskuratu beharko dute gonbidapena, eta urriaren 30a baino lehen. Bazkide bakoitzeko gonbidapen bakarra banatuko dugu.

Hori izango da lehen ekitaldia baina ez bakarra. Joseba Tapiak "Real politik"




UMORETSUA IZANGO DA LANDABERRI

ANTZERKI ESKOLAREN SAIOA.

diskoa aurkeztuko du azaroaren 3an Sutegin. Biharamunean, magia ikuskitzuna eskainiko du Txan magoak. Aitor Egiletaren DVD proiektioarekin eta Xabier Amurizaren kantaldiarekin osatu da Kultur Hamabostaldiko egitaraua.



AITOR EGILETAREN DVD-AN MUNDUKO PARAJE EZBERDINAK IKUS AHAL IZANGO DITUGU. IRUDIAN, AITOR EGILETA ZELANDA BERRIAN.



"Mende Erdi" saioa eskainiko du Xabier Amurizak

Urriaren 31ko antzezlanarekin hasi eta "Mende erdi" bertso ikuskizunarekin amaituko da NOAUA!k antolatu duen Kultur Hamabostaldia. Azaroaren 10ean, Xabier Amuriza eta Mixel Ducau izango dira "Mende erdi" saioko protagonistak.

Duela urte asko egin zuen saioaren haritik, Xabier Amurizak azken mende erdiaren pasarteak ekarriko ditu gogora azaroaren 10ean; urrutiko eta gertuko kontuekin osatuko du Sutegin eskainiko duen ikuskizuna. Mixel Ducau gitarra-jolea izango du alboan. Saioa gaueko 22:00etan hasiko da eta sarrera 3 eurokoa izango da. NOAUA!ko bazkideek, ordea, sarrera doan eskuratu ahal izango dute. Baina bazkideek, beranduenik, saioaren bezperan jaso beharko dute gonbidapena NOAUA!ko egoitzan.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400
pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak
TABERNA

Zendoia
Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

I l t s r t z
Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

Fermin Muguruzak BECen emango duen jaialdirako autobusa antolatuko du 18/98+ Usurbilgo lan taldeak

Kontzertu erraldoia ospatuko da azaroaren 11n Barakaldo-ko BECen. Fermin Muguruzak, DAM, Bad Sound System eta La Banda del Surdo taldeak bilduko ditu, 18/98 sumarioa salatu eta auzipetuei elkartasuna adieraziko zaien ekitaldiak. Usurbilgo 18/98+ lan taldeko kide Xabier Mikel Errekondok xehetasun gehiagoren berri eman digu.

NOAUA! Azaroaren 11n BECen kontzertu erraldoia antolatu duzue.

Xabier Mikel Errekondo. Egoeraren salaketa modu bizi batean egin nahi genuen. Fermin Muguruzak, kontzertuari eman nahi genion irudia ondo islatzen zuela uste dugu. Bad Sound System talde iruindarrak eta batukada doinue-tan Katalunia mailan garrantzitsuenaren den "La Banda del Surdo" taldeek ere joko dute. Haiekin batera, DAM talde palestinarrek, arabieraz abestuko dute. Musika berria entzungo dugu.

N. Noiz hasiko da emanaldia?

X. M. E. 20:00etan hasi eta 00:00ak aldera arte luzatuko da kontzertua. 18:30ean irekiko dira ateak. Denetik izango da han; tabernak... Kontzertuak beheko solairuan izango dira. Sarreran, 18/98 auzipetuei lagundu dieten elkarte eta erakundeen postuak izango dira. Formatu berezia eta bakarra izango da. Jendeak ikaragarri ongi pasa eta biziko du. Musikak, jasotako kolpeak salatu eta horiei erantzun bizi eta alaia emateko aukera ematen du.

N. Joan etorria autobusez egin ahal izango da, ezta?

X. M. E. Lan taldea dagoen herri guztietan autobusa jartzeko asmoa dago. Lasarten taldea ez dagoenez, Usurbildik kudeatuko genuke. Usurbilen behintzat, langabetu eta ikasleentzat doan izango da. Tabernetan izen emateko zerrendak jarriko dira.

N. 18/98 sumarioaren epaiketak ia urtea bete du. Lan taldetik nola ikusten

duzue orain artekoa?

X. M. E. Gizabanako eta jendartearen beraren eskubideak urratuak gertatzen ari dira. Epaiaketa bera lotsagarria izaten ari da. Galdeketeran parte hartu zuten guardia zibil berak dira perito lanak egiten ari direnak. Ildo horretatik doa epaiketa guztia. Inplikatuentzat egoera jasangaitza izaten ari da. Astean hiruzpalau egun etxetik urrun, bidaia furgo-netetan, familia eta lana utzi beharra psikologikoki horrek suposatzen duenarekin... Kalkulatuta dagoenez, sortutako kalteak hileko eta auzipetuko 7.600 euro dira. Ia inor ez gaude egoera horretatik salbu. Gizarte osoa epaitua eta auzipetua dago.

Mozio aurkezpena

Urriaren 31ean izango den udal ple-noan mozio bat aurkeztuko du 18/98+ lan taldeak. Udalak eskubide zibil eta politikoen aldeko jarrera aktiboa izateko konpromisoa hartzea nahi dute. 18/98 sumarioa salatu, bertan behera utzi eta



XABIER MIKEL REKONDO, USURBILGO 18/98+ LAN TALDEKO KIDEA.

artxibatzearen alde egitea. Olatz Altuna eta Joan Mari Torrealdeai herritar auzipetuei elkartasuna eta babesa ematea ere eskatuko da.

ARITZ GORRITI



Jaialdirako sarrerak jada salgai

Tick Tack Ticket-en web orrialdean eros daitezke sarrerak. Horiek jasotzeko, Elkar, Fotoikatz, Fnac edota Carrefour dendetara jo behar da azaroaren 8a baino lehen.

Aipatutako saltoki guneetan eta egunean bertan takilan ere salgai izango dira. Kontzertura joan ezin dutenek ere "Fila 0" sarreraren bidez, lagundu dezakete.

“Emozioen mundua” izeneko tailerra antolatu du Santuenea Elkarteak

Santuenea Elkarteak bizia eman dio auzoari. Egoitza zabaldu zutenetik hona, asko dira antolatu diren ekitaldiak. Ostiral honetan, emakumeei zuzenduriko tailerra hasiko da. “Emozioen mundua” izenburupean, lau hitzaldi eskainiko ditu Izar Arregi psikologo klinikoak. Hitzaldi denak Santuenea Elkarteak egoitza eskainiko ditu. Lehena, ostiral honetan, hilak 27, arratsaldeko 15:15ean. “Zer dira emozioak” hitzaldia izango da Izar Arregik eskainiko duen lehena. Azaroaren 10ean, aldiz, “Bizitzaren zikloak” hitzaldia eskainiko du eta azaroaren 24an “Bakardadea, dueloa, tristura” izenokoa. Abenduan Izar Arregik berak eskainiko duen beste hitzaldi batekin amaituko da “Emozioen mundua” izeneko tailerra.



EMOZIOEN MUNDUA TAILERRAZ GAIN, SUKALDARITZA IKASTAROA ERE EGINGO DA SANTUENEAN. XABI TELLO IZANGO DA IRAKASLEA.

Sukaldaritza ikastaroa,
Xabi Teloren eskutik
“Emozioen mundua” tailerra ez da Santuenea Elkarteak antolatu duen ekitaldi bakarra. Azaroaren 8an hasiko

baita Xabi Telok eskainiko duen sukaldaritza ikastaroa. Sei astez luzatuko da ikastaro hau. Asteazkenero bilduko dira Santueneko Ibai Ondo elkartearen. Informazio gehiago: 943 371 535 / 943 365 031.

Masaje ikastaroa
Bestetik, haurren masaje ikastaroa martxan dago eta laster helduen masaje ikastaroa jarriko da martxan. Informazio gehiago Santuenea Elkartearen jasoko duzue.



Kima

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321

publizitatea@noaia.com

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

EUSKAL OKELA



CAPA DE VINO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

h k k l , 4
T H 433 6742

LK T
UT ZE ITZU

ETXK
K NOL TU K

F HT K
ZKI K
DKTU K

LAUKOTE



OKINDEGIA
KAFETEGIA

Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal) 943 36 09 80

Argirik gabe ezin Haranen entrenatu

Usurbil Futbol Taldeko kideak Harane futbol zelai era berrituan partidak jokatzen hasteko gogoz daude. Pasa den urteko irailean jokatu zen azken partida ofiziala eta orduz geroztik Zubietan jokatutako dituzte etxeko neurketa guztiak. Uste baino gehiago atzeratu dira bertako lanak, eta badirudi normaltasunez entrenatzen nahiz norgehiagokak jokatzen hasteko aste batzuk itxaron beharko dituztela.

Momentu honetan argia da arazo nagusia. Belar artifiziala erabiltzeko moduan jarri zutenetik ia hiru aste pasa dira, baina argirik gabe dago futbol zelaia. Fokuak aspaldi jarri zituzten eta bazirudien argiztapenarekin ez zela arazorik izango, baina azkenean ez da hala izan. Dirudienaz azaroaren 9a arte ez da argirik izango Haranen.

Iberdrolak transformatzaile berria jarri eta garraio-kableak pasa behar omen ditu futbol zelaira eta bien bitartean lurren mugimenduaz arduratu den enpresak ere ez ditu fokuotaraino joan behar duten kableak sartu. Usurbil Futbol Taldeko kideen esanetan honek guztiak aurretik egina egon behar zuen. "Bazekiten Haranen lehen baino potentzia gehiago beharko zela fokuak eta ureztatzeko motorra martxan jarri ahal izateko. Gestio hori ezin ahal zen lehenago egin? Zergatik eginda azken aste hauetan? Galdera horiek egin dizkiegu agintariei, baino ez dugu erantzunik jaso".

Honela bada, herriko futbol taldeek entrenatzeko zailtasunekin jarraituko dute hurrengo asteetan ere. "Belar artifizialeko zelaia jarrita dago, behin behinako aldagelak ere jarrita daude, baina gure taldeek ezingo dute bertan entrenatu".

1. Errejonial mailako taldeak urtebete baino gehiago darama kanpoan entrenatzen. Donostiako Herreran eta Urnietako futbol zelaian entrenatzen ari da gaur egun, 19.30ean hasten baitituzte entrenamenduak. Instalazio hauetan gelditzen diren ordu libre bakanetan, nola hala egiten dituzte beren saioak. Entrenamendua amaitu baino lehen



HARANEN ITXURA BERRIA HARTU DU.

joan beharra ere gertatu zaie, Urnietan argiak itzaltzen dizkietenean edo Herreran beste talde bateko jokalaria etorri zirenean, adibidez. Horrez gain, Udarregi ikastolako plaza borobilean ere aritu dira.

Okerrago ibili dira emakumezkoen eta jubenilen taldeak. Oiardo kiroldegiko belar artifizialeko areto futbol zelaian, Udarregi ikastolako plazan edo herriko bideetan korrika ibili behar izan dute belar artifiziala jarri bitartean. Azken bi asteetan normaltasunez entrenatu ahal izan dute jubenilek Haranen, 17.30ean hasten baitzituzten entrenamenduak, baina ez, ordea, nesken talde-

ak. 19.00etan hasi eta gehienez 45 minutuz aritu izan dira, ilundu bitartean hain zuzen ere.

Aurrerantzean, ordea, okerrago ibiliko dira. Neguko ordutegira egokitze aldera erlojuak ordubete atzeratuko dira aste-buru honetan eta konturatzerako iluna izango da arratsaldean. 1. Errejonial taldeak orain arte bezala jarraituko du, Haranen entrenatu ezinik, 1. Jubenileko taldeak ilundu bitarteko saioa egin beharko du eta neskek ere ezingo dute herriko futbol zelaian aritu.

JOSU ARANBERRI

1. Territorial taldea bikain liga hasieran

Usurbil Kirol Elkarteko 1. Territorial mailako eskubaloi taldeak garaipena eskuratu zuen Urnietan pasa den igandean. Usurbildarrek 21 eta 28 irabazi zuten Urnietako K.E. taldearen aurka. Orain arte jokatutako bi neurketetan garaipena eskuratu ondoren Bergararekin batera lidergoan da herriko taldea eta asteburu honetan Tolosaren aurka jokatuko du Oiardo kiroldegian. Kadete mailako taldeak ere garaipena lortu zuen 2. jardunaldian, Bidasoa-Irun taldeari 29 eta 31 irabazi eta gero.

Jubenilak eta neskek Zubietan larunbatean

Harane futbol zelaian jokatu Hezirik jarraitzen dutenez, jubenil eta nesken taldeek Zubietan jokatuko dituzte euren partidak larunbat honetan. Jubenilek Lasarte-Oria taldearen aurka jokatuko dute, pasa den asteburuan Zarautzen orain arteko partida guztiak irabazita zegoen Antoniano taldearen aurka 2-2 berdindu ondoren. Emakumezkoen taldeak, berriz, Añorga B taldea izango du aurrez aurre. Hauek 1-0 galdu zuten Lasarte-Orian Ostadarren aurka.

Auzitegi Gorenak agindutako operazioa salatu dute herriko tabernetako ordezkariak

Astelehen honetan, Guardia Zibila Euskal Herriko hainbat herriko tabernetan sartu zen Batasunarekin ustez lotzen dituzten lokalen, ondasunen eta diruaren inbentarioa egiteko. Herriko tabernetako hogeitaz inguruk "Auzitegi Gorenaren aginduz pairatutako eraso larriak" salatu zituzten Aitzaga aurrean eskaini zuten prentsaurrekoan.

Beraien esanetan, "Euskal Herriari egin diote eraso", beraz, alderdi politiko eta agente sozial guztiei dei egin zieten "eraso horiei erantzuteko eta

etorkizunean berriz gerta ez daitezen zer egiteko prest gauden aztertzeke".

Elena Gineak, Donostiako herriko tabernaren izenean, "oso larritzat" jo zuen operazioa, "Guardia Zibilak, armez gainezka eta Ertzaintzaren laguntzarekin, herrikoak okupatu zituen, herritarrei mehatxu egin zien eta herriak okupatu zituen".

Bestalde, Josu Txapartegi Zarautzko herriko tabernako ordezkariak zehaztu zuenez, "eraso" hori ez da soilik "HBren edo ezker abertzalearen" aurka egin, izan ere, Zarautzko herrikoaren kasuan, taberna honetan herriko talde des-



URRIAREN 24AN, AITZAGA AURREAN EGINIKO PRENTSAURREKOAREN IRUDIA.

berdinak dabilta, baita ezker abertzalekoak ez direnak ere".

Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 27, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 28, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 29, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 30, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 31, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 1, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 2, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 3, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Azaroak 4, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 5, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

Urte osoko goardiako farmaziak www.noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK. 943372937 • 659602789

ALIPROX
Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA 37 KALEZAR

I n t e r n e t n - z r n u n l k
BEMARAKO
BEMINIK MAIOR...
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA
Kale Nagusia, 1
Tel./Faxa: 943 365 125
Mobiñ: 629 420 565 - 649 435 470

Agenda !!

Urriak 27, ostirala

- Kerobia "Rose Escargot" diskoaren aurkezpena. Sutegin, 22:30ean.

Urriak 29, igandea

- Merka2 bigarren eskuko produktuen merkatua. Dema Plazan, 10:00etan.

Urriak 31, asteartea

- Narkolepsia.com antzezlan, Landaberri Antzerki Eskolaren eskutik. 22:30ean Sutegin. Sarrera, 3 euro. NOAUAlko bazkideak doan.

Azaroak 1, asteazkena

- Artisautza azoka frontoian. Antolatzailea: Aitzaga Elkarte.

Asteburu honetan ordu aldaketa

Urriko azken asteburua gainean dugu. Horrekin batera, beste behin ere, urteroko irudia errepikatuko da. Iratzargailu, sukaldeko erloju eta esku muturrekoen orratzak orduz aldatzeko garaia iritsi da. Hala, urriaren 28tik 29rako gauean ordu betez atzeratu beharko dira erlojuak. Helburua, neguko ordutegira egokitzea da. Aldaketa nabaria eragingo du horrek. Lehenago ilunduko baitu.

Ostiral honetan, Kerobia ikusteko aukera aparta

Sutegin izango ditugu Kerobia taldekoak ostiral honetan. Disko berria aurkeztera etorriko dira Usurbila. Jaialdia 22:30ean hasiko da eta sarrerak jada salgai daude. Aldez aurretik, sarrerak eskura Oiardo kiroldegian, 8 eurotan. Egunean bertan, Sutegiko takilan, 10 eurotan.



IRUÑEKO TALDEAK DISKO
BERRIENA AURKEZTUKO DU SUTEGIN

Kerobia talde nafarrak "Rose Escargot" izeneko diskoa aurkeztu zuen lehengo astean Iruñean. Gor diskoetxeak plazaratu duen disko-ko abestiak abuztuan grabatu zituzten Berrizen, Lorentzo Records estudioan.

eta hirugarren pertsonen kontatuta. Rose Escargoten pertsonaia, fikziozkoa izaki, biografia unibertsal bat izan zitekeen ere, taldeki-deen esanetan.

Lan kontzeptuala

Kerobiaren bigarren lana da haxe. "Rose Escargot", Kerobiak sortu duen pertsonaia da. Lan kontzeptual honetan, pertsonaia honen bizitzaren nondik norakoak azaldu nahi dizkigu taldeak: ihesaldi bat, haren gogoetak, erruak eta bizi-pozak, guztia lehen, bigarren

18/98 epaiketako

auzipetuen aldeko diskoan

2003an Euskadi Gazteak Maketa Lehiaketan irabazle izan zen Kerobia eta 2004an publikatu zuen lehen diskoa.

Aurten, bigarren diskoa kalera-tzeaz gain, Kerobiak 18/98 epaiketako auzipetuen aldeko diskoan hartuko du parte.



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Kalkos kopisteria

FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

BANDERA
SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Industri eta iragarri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

Komunikazio Inprimaketa

OSU

943 371 954
USALDEA POL.36-2-USURBIL

Heapaindegia eta Solarium-a

Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

K n k l

- l n k r
G z n z k n r r p
l l u r n t z k
- F l x r k h r
l u z u n k

Zubiaurrenea, 3 33 17 7

ETXEBIZITZA

- Usurbilen logela bat alokatzen da. 679185102.
- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774021.
- Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- Asteburuan lan egiteko prest nago. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta astelehen goizetan. 686 120 402.
- Esperientzia duen neska umeak zaintzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko. 660 041 361.
- Udan umeak zaintzeko prest nago. 687 651 605.
- 17 urteko mutil bat naiz eta ekainetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Esperientzia duen emakume bat behar dugu umeak zaintzeko. 616492144
- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. 661972670.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. Interesatuak deitu 664774021.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu 664774024 telefono zenbakira.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Patri jatetxe inguruan urrezko (urre koloreko) pultsera bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzaintetan galde.
- Tren geltoki inguruan Nokia telefono mugikor beltz bat aurkitu da. Galdu duenak udaltzaintetan galde dezala.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila erosi nuke. 605 72 48 24

Txerrimunik ordaintetan !

Zorionak panpoxa! urriaren 26an 23 urte beteko ditunala. Segi zan orain arte bezain eder eta lirain. Hire kuadrilan partez muxu handi bat.

**Zorionak Ioritz!**

Ondo pasa zure urtebetetze-egunean eta muxu handi bat etxekoan partez!

**Zorionak prexioxa!**

Ze zaharra egin zaren ezta? 16 urte! Ez du ematen! (kar-kar) Beno ba oso ondo pasa ezazu azaroaren 2an, merezi duzu eta ni hainbeste denboran jasan eta gero. (kar-kar) Muxu asko!!



-Zemuz politta? Badira bederatziz hilabete azkenekoz elkarrekin egon ginela eta ez dirudi hauek berehalakoan elkartuko gaituztenik. Zer egingo dugu ba, horrelako mixeriekin disfrutatzen badute? Zaindu asko-asko eta jakin ikaragarri maite zaitudala. Jokintxu.



-Beno prexioxa! 27ak ere iritxi dittun eta tamalez, hau ere ezin kalean ospatu. Ea ba 28ak lehenbailehen iristen diren; ordun bai parranda! Askoko-asko zaindu eta besarkada amaigabe bat. Koadrila.

JAIOTAKOAK

- Unax Jauregi Macuso, urriaren 13an.

Telefono interesgarriak !

• Udala.....	943 37 19 51
• Udaltzaingoa.....	943 36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	943 37 01 48
• Eusko Tren.....	943 47 09 76
• Anbulategia.....	943 36 20 13
• Udarregi Ikastola.....	943 36 12 16
• Udarregi (Agerialde).....	943 36 38 95
• Haur Eskola (Kalezar).....	943 37 40 61
• Oiarde kiroldegia.....	943 37 24 98
• Zumarte	943 37 15 94
• Etumeta euskaltegia	943 37 20 01
• Taxi geltokia.....	943 36 21 78
• D.Y.A.	943 46 46 22
• Gure Pakea.....	943 37 32 28
• Gure Elkartea.....	943 37 17 51
• Arrate Egoitza.....	943 36 63 40
• Bake epaitegia.....	943 37 23 36
• Oa farmazia.....	943 37 60 76
• Iturralde farmazia.....	943 36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	943 37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	943 47 09 76
• NOAUA! aldizkaria.....	943 36 03 21
• Ertzaintza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdiak.....	112
• Anbulantziak.....	112

➤ www.noaua.com ◀
usurbildarron zerbitzura



Santu Gutzien Egunean



Erramuak,
zentruak, koroak eta
landaretan aukera
zabala bemen
aurkituko duzu



Egun bezain zehar zabalik!

Untinea Lorategia

Barrio de San Juan, 10
48940 Leizor (Bizkaia) - Tlf: 945 515 300
www.untinea.com

>> LANDABERRI ANTZERKI ESKOLA narkolepsia.com antzezlanak



urriak
31
asteartea
22.30
Sutegin

"Ramon, Eskolastika, Karmen, Ogi-saltzaileak, ... edozein pertsona bezala lo egiten dute baina lo egiteko ordua ez dute kontrolatzen. Beraien gaixotasuna azaltzeko terapia eguna iritsi da. Baina gaixoen begiak ixten diren momentuan Txanogorritxu, Ama Birjina, Apaiza eta bestelako pertsonaiekin egingo dugu topo. Errealitatea eta fikzioarekin jolasteko aukera ematen duen antzezlanak da."

>> sarrera: 3€ / Noaualko Bazkideak doan<<

Sarrerak egunean berari Sutegin edigai. NOAUA!ko bazkideek elkarteko egoitzan jaso behar dute antzerki salonerako gonbidapena, urriaren 30a baino lehen. Bazkide bakoitzeko gonbidapen bakarra banatuko da.

>> JOSEBA TAPIA ZUZENEAN Real Politik diskoaren aurkezpena



azaroa
03
ostirala
22.30
Sutegin

Real Politik alemanezko terminoak historia luzea dauka, baina gaur egun "posiblearen politika" esan ohi dena adierazten du: utopiak ahaztu eta egin litekeena bakarik egitera ausartzen dira gure politikoak... Joseba Tapiaren bakarkako laugarren lana da "Real Politik". Hatzeko eta musikatzeko modu berriak eragiten ditu munduak eta badago zer kantatu eta horrelan bertatu du bere soinua eta ahotsa Joseba Tapiak

>> sarrera: 8€ / Noaualko Bazkideak 5€<<

Sarrerak salgai Txirristran. NOAUA!ko bazkideek elkarteko egoitzan jaso behar dute kontzerturako sarrera, azaroaren 26 baino lehen. Bazkide bakoitzeko bihenerapendun sarrera bakarra banatuko da.